# LEZO

# AGENDA *Kulturala*

2021 // URTARRILA - EKAINA



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZO KULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

# HAUR ANTZERKIA ////////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, ostiraletan, 17:15ean




URTARRILAK **5** Asteartea 12:00

## AMAREN INTXAURRAK Pirritx, Porrotx eta Marimotots

**Katxiporreta Koop. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Pirritx eta Porrotx Marimototsekin elkartuko dira parke magikoan. Amatxo Loreto duela 3 urte hil zen. Intxaurrondoa landatu zuten amatxoren oroimenez, bere agurrean. Gaur intxaurrondoak emandako lehen fruituak dastatuko dituzte. Intxaurrak jan ahala, Loretorekin bizitako abenturak partekatuko dituzte haur eta familiekin.



URTARRILAK **22** Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## DRAG-E URAREN BILA

**Logela Multimedia. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

2.800. urtea da eta Lur planetan ez da ur arrastorik antzematen. Drag-e robotak eta bere lagunek ura lortzeko misioa abian jarri dute. Natura ulertu eta maitatu beharko dute helburu honek arrakasta izan dezan. Drag-e uraren bila antzerkia, dantza, bideo-animazioa, interakzioa, musika eta robotika biltzen duen ikuskizuna da.



URTARRILAK **24** Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## UNIKO

**Teatro Paraiso. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Paul seme bakarra da, eta bere etxeko erregea. Irati arreba jaiotzean, maitatua izateari uzteko beldur handia izango du, eta horrek familiaren egonkortasuna mehatxatuko du. Haurrek zein helduek, guztiek hainbat egoera eta pertsonaiatan ikusi ahal izango dute bere burua.



OTSAILAK **5** Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## HANSEL & GRETEL

**Borobil Teatro. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Juan Mari sukaldariak bi seme alaba ditu: Hansel eta Gretel. Bere jatetxea oso arrakastatsua da mundu osoko errezeta liburuak desagertzen diren arte. Handik aurrera inork ez du sukaldatzen asmatuko eta guztiak Amonioburgeterietara joango dira janari bila eta amonioburgerrak jaten dituen einean umeak desagertzen joango dira.



OTSAILAK **26** Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## DORENI FAMILY

**Lanku. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Xabier Lizasok, familiari zuzendutako emankizun didaktiko berri bat eskainiko du, oraingoan bidelagun izango du Aukeran dantza taldeko Olatz Oribe. Musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen emanaldi bat da. Haurrei, kantuak eta koreografiak ikasi ondoren oholtzara igo eta benetako artista izatera jolasteko aukera eskainiko zaie.



MARTXOAK **5**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## MENDIAN IBILTARI

**Kontukontari. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Gorpuztu dantza garaikide eta zuzeneko musika ikuskizun bat da. Gorputza zatitan banatuta agertzen dute egileek, askotariko erlijiotako ekintza fisikoak hartu dituzte, eta penitentzia, maitasuna, umiltasuna eta erlazionatutako bestelako kontzeptu batzuk hartu dituzte gorputzetik abiatuta ikerketa bat martxan jartzeko.



APIRILAK **16**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## IBON MAGOA

**Ibon magoa. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

jsaklhdgl



APIRILAK **23**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## HOR KONPON MARIANTON

**Lanku. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Makinak iritsi dira gure artera... eta hemen geratzeko, gainera. Telebistak, sare sozialak, “makinita” arruntak, denon eskuetan daude, baita gure seme-alaba txikien eskuetan ere. Ikasi behar dugu makinekin gozatzen, baina menpean erori gabe. Hori baita Joni, istorio honetako protagonistari gertatzen zaiona.



MAIATZAK **7**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## JON BELDURGABEA

**Txalo produkzioak. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Begoña Bilbao Lejarzegiren zuzendaritzapean, Alfonso Diez eta Aitor Fernandino aktoreek, Grimm Anaien antzerkia taularatuko dute. Jon gazteak ez daki beldurra zer den, beraz, haren aitak aholku zentzuduna eman dio, behin eta berriro zein ote den azaltzen saiatu ondoren: goxo-goxo bizi den etxea utzita, beldurraren bila abiatzea.



MAIATZAK **21**

Ostirala 17:15, Gezala Auditoriuma

## TOMAXEN ABENTURAK

**Joserra Fatxado. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 3€

Muxi eta Tomax hondartzara joan dira. Muxik egunkarian azken euskal balea geratzen dela irakurriko du eta Tomax konbentzituko du azken bale hori lagundu beharko dutela. Aitonaren baporea hartu eta Kanadara joango dira. Han plastiko eta kutsadurarengatik arriskuan dagoen azken balea salbatzen ahaleginduko dira.

# MUSIKA / DANTZA / ANTZERKIA////////////////

Gezala Auditoriumean, 19:30ean igandetan



URTARRILAK **10** Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## PORNO VERSUS AFRODITA

Patricia Urrutia/Benetan Be. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Soinu-proba. Azken kontzertua Gaztetxean ixtear dagoen Gaztetxean. Gazteak heldu zaizkigu eta ez dago inor lekukoa hartzeko prest. Taldearen azken kontzertua ere bada.
Izango da antzerkia, izango da Musika, izango da barre-algara, mina, pasioa, haragia, odola. Izango da rock and rolla.



URTARRILAK **14** Osteguna 19:30, Gezala Auditoriuma

## RAFA RUEDA

**EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Rafa Rueda abeslari eta gitarrista Broken Bihotz eta Pi.L.T. taldeetan aritu zen, bakarlari moduan hasi aurretik. Bost disko grabatu ditu bere izenarekin, literatura eta musika uztartzen dituzten hainbat proiektutan parte hartu ditu, eta ekoizle lanak ere egin ditu beste kantari batzuentzat.



URTARRILAK **17** Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## ZULOAK

Zaskanduri taldea. **EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Izaki sexuatuak gara eta oraintxe konturatu gara. Zein da gure ardura jabe egiten garenean? Zein da ardura bilaketa aurkituta ematen digutenean? Norena da? Galdera asko erantzunik gabe eta erantzun asko galderarik gabe.
(Pasaia eta Lezoko 16 urteko gazteek sortua eta taularatua).



URTARRILAK **24** Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## UNIKO

Teatro Paraiso. **EUSKAL HERRIA.** GAZT. SARRERA 8€

Paul es único hijo, el rey de su casa. A raíz del nacimiento de su hermana Irati, teme mucho dejar de ser querido, lo que amenaza la estabilidad familiar.
Tanto niños/as como adultos/as, todos ellos podrán verse reflejados en diferentes situaciones y personajes.




URTARRILAK **28** Osteguna 19:30, Gezala Auditoriuma

## LIHER

**EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

“Hemen herensugeak daude” izeneko 3. lan luzearekin datoz. 14 abestiz osatutako transmedia proiektua da, musika ez ezik ilustrazioa, narrazioa eta ikus-entzuneko materiala biltzen dituena. Pieza guzti horien baturak amodioa, bortizkeria eta emakumearen bakardadea gai nagusi dituen fikziozko istorio bat kontatuko digute.



URTARRILAK **31**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## ARITZ MAGOA

**EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Magia ikuskizuna.



OTSAILAK **7**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## GORRIA

**La Pulga & Miren Amuriza. EUSKAL HERRIA.** EUS. 8€

Miren Amuriza bertsolariaren eta Askoa Etxebarrieta flamenko dantzariaren arteko elkarrizketa artistikoa du emanaldiak. Muin berbera dute adierazpide biek, bat-batekotasuna, eta bertan egin dute topo sortzaileek. Ikuskizunean zehar, nor bere hizkuntzan kantatzen edo dantzatzen hasi eta kode konpartitu eraikitzen joango dira.



OTSAILAK **11**

Osteguna 19:30, Gezala Auditoriuma

## LA SALA

**Fight. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Gizakiak borrokarekin duen harremana primitiboa da. Hau presente egon da denboren hasieratik.
Lasalatik borroka bizitzan, oro har, eta dantzan bereziki, funtsezko elementutzat jotzen dute.



OTSAILAK **25**

Osteguna 19:30, Gezala Auditoriuma

## AMAIA ELIZARAN

**EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Dantza garaikidea komunikazio hizkuntza bezala hartuta, proiektuak abiapuntu espezifiko bat du: gorputza. Bi emakumek osatzen dute “Block”. Bi emakume hauek gorputzaren bitartez dute erlazioa, kontrako indarrak eta blokeoak sortuz. Guzti hori, erresistentzia horietan oinarritutako hizkuntza propioa eraikitzeko helburuarekin.




OTSAILAK **28**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## GALTZAILEAK (LOSERS)

**Txalo. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Manuel eta Sara adinean aurrera doaz -ia berrogei-, eta gizakiok tenore horretara ailegatuta, gizarteak markatutako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: umerik ez, bikoterik ere ez eta diruz urri, etxebizitza bat erosteko aukerarik gabe... Horregatik, euren buruak galtzailetzat dituzte.

# MUSIKA / DANTZA / ANTZERKIA///////////////

Gezala Auditoriumean, 20:00etan igandetan



MARTXOAK **7**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## IGEL EURIA

**Ados teatro. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Gaixotasun mental bat diagnostikatuta duen pertsona bat bere buruaz beste egiteko gertu dago. Flashbacken bidez, pertsonaia honen bizitzara bidaiatuko dugu, bere gaitzaren prozesua islatuz: ukapena, onarpena, beldurra, buruargitasuna, umorea, errebeldia. (Lierni Fresnedo lezoarra aktore lanetan).



MARTXOAK **20**

Larunbata 19:30, Gezala Auditoriuma

## ARAIN SAIZ TRIO

**EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Aran Saiz trio, "Bidean" lehen diska aurkezten du. 8 abesti originalez osatutako bilduma, Pop, Jazzi eta klasikoko abestiak. Melodia erakargarriak eta emozionalak dira abestien gidariak.
Arantzazu Saiz: Pianujolea; Iosu Izaguirre: Baxua; Hasier Oleaga: bateria




MARTXOAK **21**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## SARA ZOZAYA

**EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Sara Zozaya (Donostia, 1995ko/12/27) gipuzkoar konposatzaile, musikari eta abeslaria da. 2019. urte hasieratik, bakarkako ibilbideari ekin zion. 2019ko urte amaieran argitaratu zuen bere bakarkako lehen lan luzea, *III* izenpean eta *lili* izan zen singlea.
2020an *lili* izenarekin atera du bi bertsio dituen disko laburra.



MARTXOAK **28**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## ÓRBITA

**Zen del sur. GRANADA.** HITZIK GABE. SARRERA 8€

Aretoko ikuskizun onenaren saria - Ciudad Rodrigo 2020 azoka. Objektu fisiko bat beste baten inguruan deskribatzen duen ibilbidea, indar zentral baten eraginpean. Fenomeno honek Carlos López eta Noemí Parejaren arteko harremana irudikatzen du. Orbita mugimenduan dagoen poesia hutsa da.



APIRILAK **18**

Igandea 19:30, Gezala Auditoriuma

## SHAKESPEARE EN BERLÍN

**Arden - Carlos Alonso. VALENTZIA.** GAZT. SARRERA 8€

Berlín 1933. La historia de tres amigos: Martin y Elsa, -una pareja de recién casados, vinculados al mundo del cine alemán de la época-, y Leo, un actor de teatro de ascendencia judía.
Los tres comparten la vida alegre en los años 30, pero todo ello se verá truncado por la ascensión del nazismo al poder.



APIRILAK
**25**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

# FUTBOLISTOK

**Txalo. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Ikuskizun honen ardatz nagusia, Gurrutxaga Real Sociedad futbol taldeko jokalari zeneko garaia da. Futbolisto baten konfidentziak, bere lehen bakarrizketako zenbait pasarte berreskuratzeaz gain, lehen pertsonan pairatzea tokatu zaion Asaldura Obsesibo-Konpultsiboaz (gazteleraz TOC, Trastorno Obsesivo-Compulsivo) ere hitz egingo du.



MAIATZAK
**2**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

# ATZERRIAN LURRA GARRATZ

**Artedrama. EUSKAL HERRIA.** EUS. 8€

Aurora Mora bere instalazio artistikoari azken ikutuak ematen ari da, bere bizitza betirako aldatuko duen deia jasotzen duenean. Posible al da gurea ez den lur batean sustraitzea? Posible, familia eta aberriaren zama gainean dugula, hegaldi propioari ekitea? Eta, gau batean, gure bizitzaren norabidea erabaki beharko bagenu?



MAIATZAK
**9**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

# CABEZAS DE CARTEL

**Perigallo Teatro. AVILA.** GAZT. SARRERA 8€

Una pequeña compañía de teatro está en plena sesión de trabajo. Preparan una función que habla de ser libres haciendo lo correcto. En CABEZAS DE CARTEL nos colamos en un momento crítico del proceso creativo de esta obra.



MAIATZAK
**23**
Igandea
19:30,
Gezala
Auditoriuma

# ZEHAR

**Ertza. EUSKAL HERRIA.** EUS. SARRERA 8€

Dantza garaikidea komunikazio hizkuntza bezala hartuta, proiektuak abiapuntu espezifiko bat du: gorputza. Bi emakumek osatzen dute "Block". Bi emakume hauek gorputzaren bitartez dute erlazioa, kontrako indarrak eta blokeoak sortuz. Guzti hori, erresistentzia horietan oinarritutako hizkuntza propioa eraikitzeko helburuarekin.




## DESKARGATU LEZOKO APP-A

*Agenda osoa eta beste gauza ugari Kulturako APPan*

## DESCARGATE LA APP DE LEZO

*Toda la agenda y muchas mas en la APP de Cultura*

ANDROID APP ON Google play

Available on the App Store

# HAUR ZINEMA //////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 16:30ean

CINE INFANTIL



URTARRILAK
16
Larunbata
16:30

## KOKO DRAGOI TXIKIA OIHANEAN

Su dragoiak eta gourmet dragoiak elkarrekin oporretan joatekoak dira lehen aldiz, bi tribuen arteko adiskidetasun harremanak sendotzeko



OTSAILAK
13
Larunbata
16:30

## TURULEKA OILOA

Turuleka oso oilo berezia da. Itxura xelebrea duelako eta arrautzarik errun ezin duelako, beste oiloek barre eta iseka egiten diote, Ixabelek, musika andereño erretiratu batek, bere baserrira eramaten duen arte, berekin bizitzera.



MARTXOAK
6
Larunbata
16:30

## ALFOMBRA MAGIKOA

Mila eta bat Gauetako kontakizuna. Haur hori, bere ahuntz leialarekin eta alfonbra hegalari baten eta hiri handiko kaleetan bizi den neska baten laguntzarekin, munduan zehar bidaiatzeko eta etsaiak garaitzeko moldatzen da.



APIRILAK
10
Larunbata
16:30

## BRAM BARRABAS

Bram 6 urteko haur bat da eta ez da gelditu ere egiten. Alaia da, kementsua, benetako abenturazale eta asmatzailea. Munduak pentsatzeko asko ematen dio eta “Izen onenen” eta “Hitz onenen” bilduma egiten du liburuxka batean.



APIRILAK
24
Larunbata
16:30

## ASTO ERREGEA

Lehoi Erregeaerretiroa hartzekotan da eta hausteskundeak deitzea erabaki du. Mangu asto apala ustekabean herritarren hautagai bihurtuko da eta Hantusteusi, Lehoi Erregearen legezko oinordekoari, aurre egin beharko dio.



MAIATZAK
18
Larunbata
16:30

## Mr. LINK, JATORRI GALDUA

Lionel Frost ikertzaileak mitoak eta munstroak ditu ikergai, eta izaki arraro eta maitagarri bat aurkituko du, bere espezieko azkena, eta Mr. Link izena jarriko dio. Elkarrekin bidaiatuko dute duela asko galdutako Yetiak aurkitzeko asmoz.



EKAINAK
5
Larunbata
16:30

## BIHURRI, JAURETXETIK KALE GORRIRA

Istorio xarmagarri eta balioz betea da, bat-batean kale gorrian geratu den txakur aristokratiko bati eta abeslari eta musikagile izan nahi duen neska gazte bati buruzkoa.

# ZINEMA FAMILIAN//////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 19:00etan

CINE FAMILIAR




URTARRILAK **16**
Larunbata
19:00

## EZ, ESKERRIK ASKO! GLADYSEN LEHIOAK

Gladys del Estal Ferreñon, Guardia Zibilaren tiro batek hil zuen mugimendu antinuklearrak Tuteran antolatutako manifestazio baketsu batean.

---




OTSAILAK **13**
Larunbata
19:00

## 2 URTE, LAU HILABETE ETA EGUN BAT

Espainian nahitaezko soldadutzaren aurka borrokatu ziren sei gizonen istorioa da hau. Azterketa politiko, sozial eta intimo.

---



MARTXOAK **6**
Larunbata
19:00

## BIDEAK

Jabetzen al gara naturaz, paisaiaz, mendi, larre zein basoez edo gure landa eremuak eskaintzen duen aisiaz gozatzeko ditugun beharrez? Jabetzen al gara gure inguruneak eskaintzen dituen ahalmen edo gaitasun guztiez?

---



APIRILAK **10**
Larunbata
19:00

## HIL KANPAIAK

Garizmendi baserriko lurretan eskeleto bat dago lurperatuta. Fermin Araiak eta haren emazte Karmenek Nestor semeari deitu diote kargu hartzeko. Hurrengo goizean, Fermin ez da agertu, eta konturatu dira hezurrak ere desagertu egin direla.

---



APIRILAK **24**
Larunbata
19:00

## ERLAUNTZA

Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala.

---




MAIATZAK **18**
Larunbata
19:00

## CAMINHO LONGE

Alfonso Etxegarai ETAko kide ohiak 33 urte eman ditu Afrikan deportatuta. “Caminho longe” dokumentalak haren itzulera kontatuko du.

---



EKAINAK **5**
Larunbata
19:00

## NON DAGO MIKEL?

Euskal Herriko torturatuen lekukotza eta egia, justizia eta ordaina eskatzen jarraitzen duen familia erakusten dituen dokumentala.

# LITERATUR SOLASALDIAK //////////////////////

Asteazkenetan, 18:15ean, Udal liburutegian CHARLAS LITERARIAS

(Osasun bermerik ez dagoen bitartean ONLINE izango dira.) (Mientras no haya garantía sanitaria serán ONLINE.)



URTARRILAK **26**

GAZT. / CAST

## FORTUNATA Y JACINTA

BENITO PÉREZ GALDÓS

Dinamizado por Javier Mina



OTSAILAK **24**

EUSK

## ELUR BUSTIA

PELLO LIZARRALDE

Ane Mayozek dinamizatuta



MARTXOAK **30**

## EL REGRESO DE REGINALD PERRIN

DAVID NOBBS GAZT. / CAST

Dinamizado por Javier Mina

APIRILAK **28**

## IPUIN HAUTATUAK

MERCÈ RODOREDA EUSK

Ane Mayozek dinamizatuta



MAIATZAK **25**

EUSK

## GRAND HOTEL

VICKI BAUM

Ane Mayozek dinamizatuta

# LESOINU 2021 ///// TOMAS GARBIZU UDAL MUSIKA ESKOLA



LESOINU

**MARTXOA**

| A | A | A | O | O | L | I |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | 02 | 03 | 04 | 05 | 06 | 07 |
| 08 | 09 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

2021

Martxoan ospatuko da aurtengo Lesoinu eta urtero bezala, egitarau oparoa prestatu dute Tomas Garbizu Udal Musika Eskolako lagunek.

Adi egon, datak hurreratu ahala argitaratuko den egitarauari.

La Escuela Municipal de Música Tomas Garbizu ha organizado un completo programa de actividades.

Estad atentos al programa que se publicará a medida que se acerquen las fechas.




# Gezala Auditoriumeko LAGUN TXARTELA

**PREZIOA:**
25€ [Gazte Txartelarekin 20€]
Salgai jarritako txartelen kopurua mugatua izango da eta urteko balioa izango dute.
Sarrerak ekitaldiaren eguna baino lehen eta ezarritako epearen barruan erosi beharko dira. Erosketan Txartela aurkeztu beharko da eta. Gauza bera doako dantza eta musika ekitaldietan.

**ABANTAILAK:**

1. %30eko deskontua Gezala Auditoriumean programatzen den ekitaldi orotan.
2. Urteko programazioaren barruan, doako kontzertu bat eta doako dantza-emanaldia aukeran.
3. Ostiraletako haurrentzako ekitaldietan, bi sarrera doan.

**EROSTEKO TOKIA:**
Kultura Saila edo sarrerak online erosteko gunean.

# Gezala Auditoriumeko LAGUN TXARTELA

**PRECIO:**
El número de tarjetas puestas a la venta será limitado y su validez será anual.
Las entradas se deberán adquirir con antelación al día del evento, dentro del plazo fijado y será necesaria la presentación de la Tarjeta en la compra. Lo mismo para los eventos gratuitos de danza y música.

**VENTAJAS:**

1. 30% de descuento en toda la agenda cultural del Auditorium Gezala.
2. Dentro de la programación anual, un concierto y una actuación de danza gratuita a elegir.
3. En los actos infantiles de los viernes, dos entradas gratuitas.

**LUGAR DE ADQUISICIÓN:**
Departamento de Cultura o en venta de entradas on-line.




**Haur jardueretarako SARRERAK Gezala Auditoriumean ekitaldia baino lehen. SARRERA 3€**

**ABONOA Kultura sailean, astelehenetik ostiralera (09:00-13:00) Sei ekitaldietarako ABONOA 6€**